



bestelako ekonomia bat posible da 3E imagina

www.economiasolidaria.org REAS NAFARROAKO BULETINA

14 zk.
2009ko ots.



Krisia Barañain Auditorioan

Despidorik ez!
Bai kultura proiektuari!

Elkarrizketa: Peru Sasia

Fiareko zuzendaria



Herritarren Banku Etiko Baten sorrera

Fiare proiektuak Herritarren Banku Etikoa izan nahi du. Komunitatearen gizarte ehunduratik beretik sortzen ari da, gizarte zibila irabazi-asmorik gabeko tresna baten jabe izan gaitezen. Horren xedea izanen da gizartearen beharrei erantzutea, lurraldeko komunitatetik lehentasuna behar dutela uste ditugun horiei ■



BAZENEKIEN... ?

Auditoria Soziala errealitatea da dagoeneko
REAS Nafarroako 18 entitatek Auditoria Soziala egin dute 2008an. 2009an beste urrats bat eginen dugu Auditoria Soziala enpresetan eta entitateetan ikusarazteko, horri buruzko jardunaldiak antolatuz.

+ info 685 517 030
www.auditoriasocial.net
auditoriasocial@reasnet.com

Fiare



Kapital Soziala hartzeko Kanpaina

“Banku Etikoa honako hau bermatzen duen finantza tresna bakarra da: gure aurrezkien bidez eragin sozial positiboa duten jarduera ekonomikoak finantzatzea, eta Elkartasun Ekonomiaren proiektuak finantzatzea

Fiare Nafarroa Elkartearen sortu da Herritarren Banku Etikoa sortzeko. Halaber, geroko kreditu kooperatiba sustatuko da. Bere kapitalaren akzioak herritarrek eta gizarte ehundurak izanen dituzte

Merkatu Soziala, aztergai Elkartasun Ekonomiaren II. Jardunaldietan

Elkartasun Ekonomiak duen erronka handienetakoari buruzko ikerketa plazaratuko da: MERKATU SOZIALA. Elkartasun Ekonomiaren produktuen eta zerbitzuen sare hurbila, sendoa eta egunerokoa eratu nahi da, honako arlo hauetan guztietan: ekoizpena, banaketa, kontsumoa eta ikusaraztea. Gure lana baliotan jarri nahi dugu gizartera iristeko, herritarrek Elkartasun Ekonomiaren zati izan daitezten. Honako hauek egonen dira gurekin:



Jordi García (*Xarxa de Economia Solidaria de Catalunya*) eta Euclides Mance (*Red Brasileña de Socioeconomia Solidaria y Coordinación del Instituto de Filosofía de la Liberación*). Elkartasun entitateen tailerrak eta informazio guneak izanen dira..

Lekua: Sarioa, Nafarroako Unibertsitate Publikoa

+ info Egitarau osoa eta izen emateak:

http://www.economiasolidaria.org/jornada_mes09

Martxoaren
12an Sarioan

Helburua: Kapital Soziala lortzea

Urtemugaren biltzarra Barañain Auditorioan egin zen, eta honako bi hauek guztiak aritu ziren: Peru Sasia (Fiare Banku Etikoa) eta Helena Escalada (REAS Nafarroako Banku Etikoaren Batzordea). Helena Escalada hasi zen azaltzen Banku Etikoa finantza tresna bakarra dela, honako hauek guztiak bermatzen dituen: gure aurrezkien bidez eragin sozial positiboa duten ekonomia jarduerak finantzatzea, ahalbidetzea Elkartasun Ekonomiaren proiektuek krediturako sarbidea izatea, gizarte ekimenak bultzatzea hemen eta munduko Hegoaldean, eta azkenik, ohiko banku sistemak bazterrean utzitako pertsonen eta kolektiboen onura ekartzen die. Gainera, Fiare Herritarren Banku Etikoaren eredu bat da, komunitatearen gizarte ehunduratik sortua. Horrela ahalbidetzen du gizarte zibila irabazi-asmorik gabeko tresna baten jabe eta protagonista izatea, komunitateak berak lehenesten dituen gizarte beharrei erantzutera zuzendua.

2008. urteari buruz egin den balantze positiboaren barnean Nafarroako Fiare Elkarteak eratu izana dago. Nafarroako GGKEen Koordinadorak, Pobreziaren kontrako Nafarroako Sareak eta Ekonomia alternatibo eta Elkartasunekoaren Sareak (REAS) osatzen dute, eta helburua du Herritarren Banku Etiko bat hedatzea eta bultzatzea, geroan kreditu kooperatiba izanen dena, gizarteak eta gizarte ehundurak parte hartutakoa ■

+ info <http://economiasolidaria.org/node/1955>

Bezereok aukeratutako helburuak

%34	Garapenerako lankidetzatza
%33	Gizarte esparrua
%10	Ingurumena
%23	Esparru horietako edozein



Zenbakiak Nafarroan

2.280.710 €	Gordailuak 135 kontutan
750.000 €	Kreditoak

Fiaren produktuak

Maileguak. Ikusi adibideak orrialde honen eskuinaldean
Gordailuak. Hiru Aurrezki libreta mota:

*** aurrezki-berreskuragarritasunaren**
Fiare libreta

*** aurrezki lotuaren**
Fiare libreta

Fiare-ren **Sareak**
libreta

Beste produktu batzuk ateratzeaz daude

FIARE eraikitze sozialeko proiektua

Bestalde, Peru Sasiak azaldu zuen FIARE bereziki Gizarte Eraikuntzako proiektu bat dela gizarte ehundura eta herritarrengandik sortua eta haiek laguntzeko xedearekin. Eredu kapitalistaren krisi sakona dugun honetan, jendeak bereziki baloratzen du bestelako ereduak sortzeko beharra eta Fiarek bestelako eredu hori eskaintzen du. Egun Nafarroan eta Estatuan Gizarte Ehundurarekin (GGKEak, Gizarte Sareak eta Gizarte Mugimenduak) duen harremanaren bitartez eratzen ari da. Fiaren oinarria 500 entitatearen multzoak osatzen du, Fiare plataformetan integratutakoak Estatu osoan (Katalunia, Euskadi, Andaluzia, Madril, Valentzia, Nafarroa, Kanariak eta Gaztela eta Leon). 2009. urterako gizarte oinarri hori indartzeaz eta zabaltzeaz gain, Kapital Soziala Hartzen hasteko helburua ere badago, beharrezkoa baita Fiarek finantza bitartekaritza -zerbitzu guztiki- egitea ahalbidetuko duen kreditu kooperatiba sortzeko. Urratsak egiten ari dira Europa mailan lehenbiziko kreditu kooperatiba sortzeko, Frantziako NEF eta Italiako Banca Popolare Etica izenekoekin batera. Kooperatiba hori eratzea lortzen bada, 60.000 kideko eta 7.000 elkarteko gizarte oinarria lortuko litzateke, eredu deszentralizatu eta lurraldeko autonomia ezaugarri gisa izanen zituena.

Fiarek lagundutako zenbait proiektu

Josenea. REAS Nafarroa

- Fiare Banku Etikoak estatu osoan lagundutako lehen proiektua
- Lorezaintzako zerbitzu integralak, kosmetika naturala, usain belarrak eta sendabelarrak

www.josenea.com



Can Cases Kooperatiba. Katalunia

- Etxebizitza kooperatiba
- Erabiltzeko eskubidea uzten du eta titulartasuna kooperatibarena da
- Komunitatearendako hainbat zerbitzu bultzatzen dira

Afores, s/n 08273 Santa Maria D'Olo - Bartzelona | 938 384 027



Ecolojak, lorezaintza eta askatasuna. Asturias

Langileak diren bazkideak nolabaiteko zigorra betetzen ari dira Asturiaseko espetxeren batean. Gizarteratze modu aitzindaria eta berritzailea da. Enpresa sortzaile horiek REAS Nafarroaren eta Nazioarteko Emaus elkartearen bermea dute. Proiektua Fiareri aurrezki zioten Elkartasun Ekonomiaren entitate zenbaiteatik. Valentziako entitateetatik, hain zuzen

www.utevallabona.es/category/28

Iñigo Hernani (La Montañuela). Burgos

Nekazaritza ekologikoa Burgosen. Fiareko Bilboko bulegoa kontsumo sare honetako beste gune baten gisa utzi da

www.economiasolidaria.org/node/959



Krisia Barañain Auditorioan

Ekidin dezagun kultura proiektu baten degradazioa

Barañain Auditorioaren langileek aspaldi jakinarazi ziguten bertan sortua zen bertako lan egoera kaskarra eta baliabideen eskasia. Kontua larria da, kultura proiektu hau benetan arriskuan egoterainokoa. Urteak dira Nafarroako Gobernuak baliabideak murrizten ari dela. Barañain Auditorioa Fundazioak, udaleko zinegotziz osatutakoak, indarra eta nagusitasuna galdu du etengabeko ika-mika politikoengatik eta ez du jakin hezkuntza eta kultura balio ikaragarria duen proiektu honi babesa eta bideragarritasuna ematen.

Politika familien arteko borrokek zauri larriak eragin dizkio kultura proiektu honi. Negargarria da, proiektu honek babesa merezi baitu, txandez eta liskarrez haratago.

Gure Komunitatean eskasia nabaria dago

elitista ez den kulturarako sarbidean, benetan falta baita dantzariak, aktoreak, musikariak, komikoak eta akrobatikak, besteak beste, sortzeko harrobia. Ikus-entzule parte-hartzaileak eta zen-

tzu kritikoarekin sortu behar ditugu. Ez du batere zentzurik makina bat gune eszeniko sortzea neurri berean ez badira hazten ekintza planak eta kulturarako sarbidea, "bat-bateko ikusgarritasunaz" anitzez ere haratago. Gizarte bezala hazteko, hezteko eta sentiberatzeko, asfalto eta zementua bezainbeste -edo are gehiago- behar dugu kultura bera.

Espiritu honi jarraikiz, Barañain Auditorioaren langileek kultura eskaintza alternatiboa eta parte-hartzailea sortu du, Barañaingo eta leku guztietako jendearendako, sareko lanean arituz beste antzoki batzuekin edota REAS bezalako gizarte sareekin. Ikusle-entzuleekiko komunikazioa bilatu nahi izan da horrela. Biderartu-TransportArte ekimena, kasu, hainbateko ospea izan duena bere

izaera berritzaile eta iraunkorrenatik... Logika guztien kontra, ibilbide hori itoaz egin da, hezkuntza eta kultura interes handiko proiektu asko desagerrarazita. Langile taldeak murrizketa nabaria

REAS NAFARROAK
esperientzia gogorra
bizi izan zuen
Miluce proiektuaren
degradazioarekin eta
denok nahi dugu Barañain
Auditoriak bere bidea
zuzentzea berriz ere,
REASen baitan egoteak
duen zentzua ez galarazteko



Barañaingo herritarrek eta Barañain Auditorioaren lagunak elkarrekin ibili dira bai kaleetan zehar, bai komunikabideetan. Irudian, urtarrilaren 23ko elkarretaratzea.

jasan du, eta 12 pertsona izatetik 7 izatera pasatu da. Udalaren aldetik esaten da bi lanpostu berri sortuko direla: bata, kazetariarena, amatasunarengatik gertatu den ordezteak baizik ez da, besteak, "zerbitzu anitzeko" langilearenak, azpisoldata bat eskaintzen du. Gainera, bi lanpostu horiek zegoen lan hitzarmenetik kanpo gelditu dira. Barañain Auditorioak harremanak zituen REASen baitako enpresa eta pertsonekin, eta kultura zein arte askori elkarlanerako, ikerketarako eta dibulgaziorako guneak eskaintzen zizkien. Bistan denez, itogarria den egoera honetan eta jarduera faltarekin, sinergia horiek guztiak eta REASen zegoen inplikazio aktibo hori bertan behera gelditu dira, horrek ekarriko dituen ondorio guztiekin, lan, gizarte eta kultura arloetan ■

REASen webgunea saritu bere lehen urteurrenean

Economiasolidaria.org webgune onenari ematen zaion Web@ctiva 2008 saria jaso du. INVESTIC Elkartasun enpresari eman dio Berrikuntzaren Europako Zentroak (CEIN). Sari hori zabaldu nahi diogu sare lan eta komunikazio tresna hori gauzatzeko ari garen guztioi, eta herritarren harrera onari. 2008ko urtarrilaren 2an sareen sarearen webgune berria estreinatu zen. Jakinarazi nahi genuke webgunearen oinarria dela DRUPAL eduki kudeatzaile indartsua (software askea). Horrek ahalbidetzen du aldi berean talde ezberdinek lan egitea sarbide ezberdinetatik. (batzordeak, entitateak, albiste publikoak...). 2008ko datuak:

103.797 Bisitari bakarrak

225.617 Bisitak guztira

2.191.742 Ikusitako orriak

2.000 baino gehiago Artikuluak



portal de economía solidaria

Elkartasun Ekonomiaren hurrengo hitzorduak

Data	Hitzordua	Bultzatzen du
MARTX. 12	Elkartasun Ekonomiaren II. Jardunaldiak: Merkatu Soziala	REAS
MARTX. 25	Hartze Sozialeko Kanpaina aukezteak	Fiare Nafarroa Elkarte
MARTX. 31	"Bulegorako" Jardunbide Egokien gidaliburuaren aurkezpena	REASeko Kontsumo Arduratsuen Batzordea
APIR.22/25	LUX-09. IV. Nazioarteko Foroa "Elkartasunaren Globalizazioa"	EErako Europako Institutua (INEES) eta Ekonomia Sozialaren eta Elkartasunezkoaren Nazioarteko Sarea (RIPESS)



Lux'09. IV. Nazioarteko Foroa. Elkartasunaren Globalizazioa. Une estrategikoa modu nabarmenean aurrera egiteko. Elkartasun Ekonomia eta Ekonomia Sozialak ikuspegi iraunkorrak eskaintzen ditu munduaren etorkizunerako. Ekonomia politiketan laguntza izan beharko lukete. Nazioarteko Foroaren Lekua: Esch-sur-Alzette (Luxemburgo)

+ info <http://www.lux09.lu>

Banku Etikoa sortzeko, beharrezkoa da gizarte ehunduraren eta herritarren parte-hartze zabala



ELKARRIZKETA FIARE BANKU ETIKOAREN ZUZENDARIA DEN PERU SASIA-RI

Imagina. Nola sartu da Banku Etikoa Nafarroan?

P. Sasia. Nafarroako kasuan "gidaliburukoa" da. Izan ere, oinarri bultza-tzailea Nafarroako Fiare Elkartearen eratzten duten hiru sektore sareek osatzen dute (Nafarroako GGKEKa, Pobrezia sarea eta REAS Nafarroa). Horixe da ekosistema emankorrena eta egokiena Banku Etikoa sendotzeko, eta hala gertatzen ari da.

Imagina. Nola dago proiektua Estatu osoaren mailan?

P. Sasia. Orain bai esan dezakegula Fiare zeharkako proiektua dela Estatu osoan. Fiare Fundazioa eragile dinamizatzailea da lurralde mailako sei entitateekin eta Coop57 elkartearekin batera. Garrantzitsuena da lurralde mailako entitate bakoitzak autonomia izanen duela eta herritarren-gandik hurbilago egon behar dela herriz herri ezarriko diren taldeei esker. Fiare proiektuarendako askoz garrantzitsuagoa da banku etikoaren proiektua prozesu herritar -lurraldeei dagokienez zabala dena- horren bidez egitea bulegoak edo kutzazainak toki guztietan jartzea baino.

Imagina. Antolatua dago Fiare Europa mailan?

P. Sasia. Harreman naturala dago Febea federazioarekin (Banku Etikoaren Europako Federazioa) eta nazioarteko beste erakunde batzuekin. Gaur egun eroso eta hurbil sentitzen da bere gidaria den Banca Popolare Ética Italiana-rekin eta Frantziako LaNef elkartearekin. Etorkizunean baliteke estrategiak elkarrekin eratzea baina orain gure beharra da proiektua oinarritik eratzea eta gure gune naturalean.

Imagina. Zer da Kapital Soziala Hartzeko kanpaina?

P. Sasia. 2011. urterako fondo ekonomiko bat lortu behar dugu autonomia eta zerbitzu sorta zabala duen Kreditu Kooperatiba izateko. Halaber, pertsonak eta kolektiboak Fiare proiektuaren kide bilatzeko modu bat da. Gure lagun naturalak dira irabazi-asmorik gabeko entitateak eta herritarrok oro har, gizarte ehundurarekin harremanak dituztenengandik hasita, baina badira beste kide natural batzuk, besteak beste, udalak, herritarren sareak... ■

ERABAKI PROZESUA

1 pertsona / 1 boto
1 entitate / 1 boto
Boterea kontzentratzea saihesten da

PARTE HARTZEKO ESPARRUAK

Lurraldeko taldeak
Lurraldeko elkarteak (batzarra)
Estatuko plataforma

Egoitza eta harremanetarako datu berriak

SETEM Navarra / Nafarroa
Eretokietza kalea 7
31007 Iruña
948 27 57 20
www.setem.org/navarra

Empresa y Solidaridad I Tierra
Gipuzkoako etorbidea 36, bajo
31013 Berriozar
Lehenengo posta elektronikoa eta telefonoa dute
www.empresaysolidaridad.org



2009an hasiko da Kapital Soziala Hartzeko kanpaina (KSH). Helburua da kreditu kooperatiba sortzea, Fiare finantza bitartekaritzaren lanak egiten has dadin. Horri esker zerbitzu guztiak eskainiko ditu eta herritar askoren lehen aukera izanen da bankuen artean. Herritarren banku etikoaren eredu ez dago zentralizatuta eta lurralde esparruan autonomia handia eskaintzen du.

KSHren HELBURUAK*

	2009	2010	2011
NAFARROA	110.000	220.000	325.000
ESTATUA	1.500.000	3.300.000	5.600.000

* Datuak eurotan. Helburu hauek zehaztu dira lurralde mailako sareekin bat.

BAZKIDE HELBURUA 2011. URTERAKO (NAFARROA)

PERTSONA FISIKOAK	500
PERTSONA JURIDIKOAK	125

NOLA PARTE HARTU KSHKan

PARTIKULARRA	300 €
ERAKUNDEAK (irabazi-asmorik gabek)ak	600 €
BESTE KOLEKTIBO BATZUK (sindikatuak, udalak, enpresak...)	1.800 €

REAS Nafarroako kide bazara, eta IMAGINAK Elkartasun Ekonomiaren eta Jokabide Zuzenen berri ematea nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan.

Kodeak:
KSHK: Kapital Sozial Hartzeko Kanpaina